

Elgoibar - 1311. zenb.
XXXI. urtea - 2024-01-05

TOKIKOM

BARREN



Atletismoaren erakustokia



ESKERRIK ASKO!

Arrakastatsua izan da aurten ere Elgoibarko Izarraren tonbola, eta arrakasta hori zuei esker da. Eskerrik asko opariak eman dizkiguzuenoi, oparirik gabe ezingo genuelako tonbolarik antolatu; eskerrik asko, boletok erostera etorri zineten herritar guztioi, mila esker tonbolaren aldeko diru ekarpena egin duzuen enpresa guztiei, eta eskerrik asko, baita ere, egunean bertan laguntzera etorri zineten boluntarioei. Kalegoen plaza ilusioz bete genuen abenduaren 24an, eta zuei guztioi esker, euskararen aldeko tonbola urtetik urtera sendoagoa da. 2024an ere leku eta ordu berean ikusiko dugu elkar.

.....

■ 2. estankoa ■ 40-15 Tenis elkarte ■ Abatetxe landetxea ■ AEK Euskaltea ■ Agurtzane ile-apaindegia ■ Ainara Arnaiz ■ Alfonso Guillo (Leok'k) ■ Alire estetika ■ Alcorta Forging Group ■ Alcorta Bakailauak ■ Altzola Berazeta baserria ■ Amagoia gozo denda ■ Amaia fruta denda ■ Ametsa kafetegia ■ Ana Mosacula xaboiak ■ Ane arte tailerra ■ Ander Mujika ■ Andres Alberdi ■ Antxustegi zeramikak ■ Anua errektifikatuak ■ Aranburu bitxi denda ■ Aauri lurriedegia ■ Armueta harategia ■ Arriere De La Maison De Izaro ■ Arrizabal Elkarte ■ Astigarraga Kirolak ■ Atelier Oihana moda ■ Aterpe taberna ■ Azkue argazkiak ■ Azpiz Bags ■ Barrutia optika ■ Beitia Arriola fisioterapia ■ Beitia Arriola hortz klinika ■ Belaustegi jatetxea ■ Beristain Mekanizatuak ■ Berkoa S. Koop. ■ Bertsozale elkarte ■ Bitxi Bitxi bitxiak ■ Bizipoza elkarte ■ Bizkor bizikletak ■ Bronymec ■ C.D. Elgoibar ■ Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturalak ■ Cynthia Pazmiño ■ Danele Sarruigarte ■ Danobat Group ■ Darama bitxiak ■ Debabe Udal Euskaltea ■ Dislegi Debabarrena Elkarte ■ Doña Mercedes okindegia ■ Eibarko Txirringulari Elkarte ■ Ecenarro lenteria ■ Egur Arte tailerra ■ Elena ile-apaindegia ■ El Gautxo pizzeria ■ Elgoibarko EH Bildu ■ EITB ■ Elgoibarko Igeriketa taldea ■ Elgoibar Ikastola ■ Elgoibarko PSE-EE ■ Elgoibarko Udala ■ Elkar argitaletxea ■ Eñaut Elorrieta ■ Eroski Bidaiak ■ Eroski Maala ■ Errigora taldea ■ Errosario hagin klinika ■ Esther Ibaguren ■ Etxepe ■ Etxe-Tar ■ Euskaltel ■ Euskaltzaleon Topagunea ■ Exclusivas Pelegrin ■ Farmazabal parafarmazia ■ Ferpi modak ■ G&M jantzi denda ■ Gaidu ■ Galle-Tiak ■ Gararock taldea ■ Garate jantzi denda ■ Gertu fisioterapia ■ Gertu koop. E. ■ Go!azeneko aktoreak ■ Go Bike bizikletak ■ Goialde ■ Grabados Laser 2d ■ Hair's ile-apaindegia ■ Haritz Euskal Dantzari Taldea ■ Herri Eskola ■ Ibai-Ondo erretegia ■ Iban Urizar ■ Ibarrenea okindegia ■ Ibon Serrano ■ Idama ileapaindegia ■ Ikus Optika ■ ILS hizkuntza akademia ■ IMH Campus ■ Iñigo Azpiroz ■ Industrias Banat ■ Industrias Metala ■ Ipintza margoak ■ Irati Agirreazaldegia ■ Iria umeen arropa denda ■ Iriondo Altzariak ■ Iriondo Kirolak ■ Irune Arriola Andonegi botika ■ Irune Iriondo ■ Iturri taberna ■ Izakara estudioa ■ Jai Alai taberna ■ Jakoba Errekondo ■ Jasone Osoro ■ Javier Elortza ■ Jesus Mari Makazaga ■ Jon Magunazelaia ■ Jon Olivares ■ Jose Alberto Eguren ■ Jose Antonio ile-apaindegia ■ Julia Arregi ■ Juantxo burdindegia ■ Kala loradenda ■ Karakate Bizirik plataforma ■ Karkizano mertzeria ■ Katxalote diseinuak ■ Katxiporreta ■ KIDEOK ■ Kilimona Trail (MTE) ■ King-Kong taberna ■ Kiñu Tools ■ Kiroldegiko taberna ■ Kultur Kafea ■ Kutxabank ■ Laboral Kutxa Txirringulari taldea ■ Lagun Taldea Txirringulari Elkarte ■ Lagunak Textil-Hogar ■ Larre okindegia ■ Leire Garate ■ Leire ile-apaindegia ■ Lete jantzi denda ■ Lizagasar sagartokixa ■ Maddi bitxiak ■ Magi bitxiak ■ Maite Maiora ■ Maite Rementeria ■ Mancisidor enpresa ■ Mapfre aseguruak ■ Maraca Diablo musika taldea ■ Marcajes Telleria ■ Maria Urizar ile-apaindegia ■ Mausitxa baserria ■ Mecanizados Enean S.L. ■ Mekanosa ■ Meraki ile-apaindegia ■ Mendaroko liburutegia ■ Milar Bire elektrogailuak ■ Mintxeta taberna ■ Mintxeta Atletismo Taldea ■ Morkaiko Mendizale Elkarte ■ MTE Milling Machines ■ Munlet musika taldea ■ Mutua General de Seguros ■ Muzak musika taldea ■ Nalai oinetakoak ■ Naiz komunikabideak ■ Nik Behar Dut diseinua ■ Noau! Kultur Elkarte ■ Oin berri podologia zentrua ■ Oinherri elkarte ■ Olaia Martinez estetika zentroa ■ On informatika ■ Olaia Irigoien ■ Patxi Azpirotz ■ Pausoka ekoizpenak ■ Pitxintxu opari denda ■ Puntueus fundazioa ■ Rural Kutxa ■ Sanson aroztegia ■ Sahatzu harategia ■ Salento pizzeria ■ Sanlo Eskubaloi taldea ■ Sigma jatetxea ■ Sua Crossfit ■ Suministros Evia ■ Suministros Industriales Olsa ■ Surya belar denda ■ Swisslan enpresa ■ Tantaka taberna ■ Tokikom elkarte ■ Txankakua Elkarte ■ Txillarre ekodenda ■ Tximi Mecanizado de Precisión ■ Txomin harategia ■ Udal ludoteka ■ Urvat Waterpolo taldea ■ Uxue Alberdi ■ Uzuri optika ■ Vanesa Mateos ■ Xarlem Creations ■ Yudego farmazia ■ Zalao Arnaiz ■ Zazpi informatika ■ Ziarda harategia ■ Zu+ni oihalak ■ ...

Argitaratzailea:



Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

2024 izenburua duen liburua



***“Oraindik idatzi gabe dauden
abenturen liburu luzea
izango da 2024a”***

Babeslea: Laguntzaileak:



Urte Berria ez da egutegian marka hutsa; gure urteroko helburuen eta asmoen zerrenda luze hori berridazteko momentua ere bada. Urte aldaketak, hamabi mahats, kanpaikadak zein kanaletan ikusiko ditugun, auzokideak botatzen dituzten su artifizial eta familiarterako xanpain koparen brindisaz gain, bizi izan dugunaren inguruko gogoeta sakona egiteko ere balio du.

Ziklo berri honek kapitulu baten itxiera ez ezik, aukeraz betetako beste bat ere badakar. Oraindik idatzi gabe dauden abenturen liburu luze bat izango da 2024a, gure helburuak, ametsak eta asmoak margotzeko aukera emango diguna. Era berean, iraganeko kargetatik askatzeko ere aukera izango dugu, hauei ikuspegi positibo bat emanez edo benetan desio dugun etorkizun baikor eta itxaropentsu bat sortuz.

Batzuetan arestian aipatutakoa ez da erraza, batez ere gaur egungo gizarteak, perfekzioa eta arrakasta bilatzera bultzatzen gaituelako, honako hau bilakatuz gure bizitzen lehentasun nagusia. Eta modu honetan ahaztu egiten gara, familiarterako eta lagunarterako momentu txiki eta preziatu horietaz, hots, benetan zorionsu eta berezi egiten gaituzten une atseginez. Horregatik, uste dut Urte Berria gure benetako lehentasunak zein diren ezartzeko eta benetan axola zaigun horretan arreta jartzeko momentu egokia izan daitekeela.

Beraz, beste urte batez zabaldu zaigun kapitulu berri honetan, gogora ditzagun zein diren gure bizitzako lehentasunak. Baita nortzuekin konpartitu nahiko ditugun honako hauek ere, partekatzeaz gain urteak pasa ahala beraiekin gogoratzeko aukera ere izango baitugu. Hala nola, astiro gaude, oraindik 2024 izenburua duen liburuko orriak kolore txuria baitute, baina ez ahaztu idazleak gu garella eta gure esku dagoela 366 orriak kolore biziz, irribarrez eta maitasunez margotzea.

Urte berri on gutzio!

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Milesker denoi!

Urteak dira Gabon Zahar ferian elkartasun taloak saltzen ditugula helburu solidario desberdinekin. Iaz bezala, aurten ere Karakate Bizirik eta Baso Biziak taldeek antolatu genuen postua, gure ekimenen hedapen eta finantzaketarako.

Jende askoren lana da beharrezkoa horretarako eta aprobetxatu nahi genuke tarte hau eskerrak emateko ere: Ibar Txikiri, Lizagasari eta Sahatzuri, betiko arreta jatorragatik; Salento pizzeriari, sortzen dizkiogun eragozpenak adeitasunez eramateaz gain, beharrezko baliabideak eskaintzeagatik; Udaleko eta brigadako langileei gure lana errazteagatik, horrelako egunetan topera dabiltzala dakigun arren. Azkenik Elgoibarko Izarrari, Gure Bide eta Ego-Toki elkarteei, Gazte Asanbladari, Malako jai Batzordeari, ezker abertzaleari eta pentsiodunen mugimenduari eta Eibarko Rugby taldeari beren materiala eskuzabaltasunez uztearren.

Nola ez, taloak egiten edo bestelako zereginetan jardun zenuten guztioi ere gure eskerrik beroena, ekimen honen alde zuen denbora eta lana eskaintzeagatik: zuek gabe ez litzateke posible. Azkenik, eskerrak jan-edanera hurbildu zinetenoi edo babesa beste era batera ematen diguzuenoi.

“Elkartasun taloak” ekimena

Elgoibarko Baso Biziak eta Karakate Bizirik

Eskerrik asko

Mendaroko Txirrindulari Elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu Haur Krosa eta urte zahar eguneko San Silbestre lasterketa antolatzen lagundu zeniguten boluntario guztioi. Opor egunak ziren zuetako gehienontzat, eta hala ere, zuen denbora eskaini zeniguten. Eskerrik asko, era berean, Udalarari emandako babesagatik, eta gurekin batera korrika egitera animatu zineten

guztioi, zuek gabe alferrik delako ahalegin oro. Aitortu beharra dugu nahi baino parte-hartze apalagoa izan genuela Haur Krosean, bereziki adin tarte batzuetan, baina pozik gaude parte hartu zuten eskola-umeek eta haien gertukoek gozatu zutela ikusita. San Silbestre lasterketan, berriz, 95 saltakari elkartu ginen, eta giro ezin hobean agurtu genuen urtea. Eta bai batean zein bestean, Mendaro sortzeko lanean jardun zirenen ahalegina indartzeko duela 40 urte sortutako irudia eraman genuen paparrean, Mendarok 40 urte bete izanak merezi duelako hainbeste.

Mendaroko Txirrindulari Elkartea

Eskerrik asko

Aje emozionalaren ostean, eta lan handi guztia gure aurreikuspenen barruan atera dela aztertu eta egiaztatu ondoren, orain lasaiago, lagundu diguten denei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Logistika azkarra eta erraza izango zela uste genuen, baina planifikatu ahala, gauzak pilatu egin ziren eta lana handitu egin zitzaigun. Zorionez, Elgoibarko Udalarari eta kirol patronatuaren laguntza handia izan dugu, elkarlanean gauzak erraztuz.

Udaltzaingoari ere eskerrak eman behar dizkiogu egindako lan bikainagatik, segurtasun hedapen oso garrantzitsua eta eraginkorra egitea lortu dutelako, parte-hartzaile guztiak babestuz. Bestalde, ibilbidea janzten eta korrikalarien poltsak osatzen, garrantzia puntu hori emanez, enpresa eta entitate handien presentzia izan dugu: Rural Kutxa, Eroski eta Txankakua.

Eta ohorezko brotxea jarri duten gure herriko zentro, merkataritza eta ostalaritza establezimenduei, eskerrik asko, parte-hartzaile guztien artean zozketatzeko opariak emateagatik: Kala loradenda, Txillarre, Casa Astigarraga, Arauri lurrindegia, Barrutia optika, Bizkor Bizikletak, Doña Mercedes, Ecenarro Merzeria, Federópticos Ikus, G & M jantzidenda, Goiara lurrindegia, Iriondo Kirolak, Karkizano, Kima Bioestetika, Lanbroa, Pitxintxu, Roteta Elektrizitatea, Uzuri Optika, Zazpi informatika, Lizagasar, Ametsa, Ibai Ondo erretegia, Mintxeta taberna, Tantaka, Kaia, Maala,

Txarriduna, Gabi, Jai Alai, Iturri, Malape, Fisio & Mas, Siu fisioterapia, Amagoia gozokiak, Gobike, TX4 Fitness, Karakate Bizirik.

Boluntarioei, partaideei, publikoari... Elgoibarko herriari, oro har, mila esker. Zuen laguntza guztiari esker dena espero genuena baino hobeto irten da. Zorionekoa da halako herri dedikatua izatea, eskerrik asko bihotz bihotzez, eta hurrengo ediziora arte!

Gora San Silbestre Lasterketa! Gora Elgoibar!


CATT MORKAIKOren
San Silbestre Lan Taldea



Anastasia de la Fuente Esteban

2023ko abenduaren 21ean hil zen, 97urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Betirako izango zaitugu gogoan.



Maria Teresa Arregi Arregi

2023ko abenduaren 31n hil zen, 94 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Zure kuadrilla



Maria Teresa Arregi Arregi

2023ko abenduaren 31n hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Ama-amama:

Joan zara, gu penaz eta saminez beterik utzita, baina zurekin batera bizi eta partekatu dugun guztiari esker, beti izango zaitugu gure bihotzetan.

Ezin izango zaitugu inoiz ahaztu.

Etxekoak





Zuen keak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658




Txakur kakak jaso ostean dagokion lekura bota behar dira:

"Txakur jabeen betebeharra da txakur kakak batzea, baina batu ostean ezin dira edozein lekutan laga. Txakurjabeen lana borobiltzeko, dagokion lekura bota behar dira kakaz beteriko poltsak".



Iñigez Karkizao kalea ez dute behar bezala zaintzen:

"Iñigez Karkizao kalean baldosak solte daude leku batzuetan, eta ondorioz, zuloak daude lurrian. Horrez gain, ez daukagu argirik ingurune honetan, eta gauzez oso ilun egoten da dena. Udalera bideratu dugu gure kalea konpontzeko eskabidea, baina momentuz ez digute ezer erantzun".



Eguberrietan ez dute umeentzako ezer jarri Elgoibarren:

"Guraso askoren arteko haserrea ekarri nahi dugu gaur hona, izan ere, konturatu gara Eguberrietako oporretan ez dutela umeentzako ezer antolatu Elgoibarren. Inguruko herrietan puzgarriak

egon dira, frontoi edo gune estali eta epeletan, baina Elgoibarren ez dute umeengan pentsatu antolatzaileek. Eibar, Mendaro, Ermua, Zarautz eta beste hainbat herritara mugitu behar izan gara. Aste Santuan ere gauza bera gertatuko al da? Ezetz espero dugu".



**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**

**943 743 704
688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN
Aito Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR



MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

Green Capitalek bertan behera laga du Karakaten zentral eolikoa eraikitzeko zerabilen asmoa

Green Capitalek atzera egin zuela jakinarazi zuten abenduaren 22an Karakate Bizirik plataformatik; bertan behera laga zuela Karakaten bi haize errota eraikitzeko zebilkien asmoa. Akillar eta Otsoldasororako proiektatuta zituen bi haize errotak enpresa madrildarrak.

Green Capitalen matrizea den Capital Energy enpresak Trekutz (Antzola-Urretxun) eta Buruzaiko (Azkoitia-Azpeitia-Zumarraga) zentral eolikoen inguruan egindako ingurumen txostenean irakurri zuten esplizituki plataformako kideek enpresak Karakaterako zuen asmoak ez zuela aurrera egin eta enpresako iturriek baieztatu zieten gero albistea. "Ez zaigu loteria tokatu, edo bai... edo Olentzeroren opari aurreratua izan da... baina hainbeste espero genuen berria iritsi da", adierazi zuten plataformako sare sozialen bidez. Era berean eskerrak eman zizkieten babestu zituzten herritar eta elkarteei, Elgoibarko, Soraluzeko eta



Bergarako udalei, eta Aranzadi zientzia elkarteari.

Berri ona ospatzeko eta "arnasberritzeko" tarte bat hartuko zutela jakinarazi zuten, baina aurrera begirako erronkak ez zituztela ahaztuko. Besteak beste honakoak aipatu zituzten: Karakateko mendigain osoaren babes erabatekoa lortzea, Euskal Herriko mendietan aurrera darraiten zentral eolikoei erantzuna ematea eta energia eta material krisiarentzako "erantzun globalak" bilatzen eta lantzen jarraitzea.

Jo Ta Sua talde realzalearen erakusketak ikusmina sortu du Elgoibarren



Ikusmin handia sortu zuen abenduaren 26tik 29ra Jo Ta Sua talde realzaleak Kultur Etxean ikusgai izan zuen erakusketak. "Momentu gozoa bizi du Realak, denbora darama joko ikusgarria egiten, eta zortea izan dugu gure urteurrenak eta erakusketak Realaren sasoi on honekin bat egin duelako, bolara txarragoak ezagututakoak baikara", azaldu dute Jo ta Suako kideek. 1998tik iazko abendura arteko argazkiekin batera, 25 urteotan Realak izan dituen kamiseta desberdinak ere jarri zituzten zintzilik Kultur Etxeko hormetan, horietako asko sinatutakoak. Argazki gehiago: barren.eus.

Bilboko manifestaziorako autobusa, Elgoibartik

Konponbiderako giltzak lemapean manifestazioa antolatu du Sarek urtarrilaren 13rako. Bilbon izango da, eta bertaratzeko autobusa egongo dira Elgoibartik. Manifestazioa 16:00etan hasiko da, eta autobusa 15:00etan irtengo da Txankakuako geltokitik. Jai Alai, Iturri eta Lanbroa tabernetan eman behar da izena.

1.213 zenbakia da Institutuko DBH4koen errifa sariduna

Ikasbidairako dirua biltzeko, errifak atera dituzte aurten ere Elgoibar BHI institutuko DBH4ko ikasleek eta jakinarazi dutenez 1.213 zenbakia izan da zozketan saritua.

5.400 lagunek sinatu dute dagoeneko Altzolako tren geltokia mantentzearen alde



Gabon Zahar azoka egunean merkatu plaza aurrean egon ziren Altzola-Elgoibarko tren geltokiaren aldeko plataformakoak sinadurak biltzen. Adierazi dutenez, 1.250 sinadura bildu zituzten Gabon Zahar ferian, eta ordura arte bildutakoei gehituta, 5.400 sinadura dira guztira. Pozik daude orain arte jasotako babesarekin, baina lanean jarraituko dutela azpimarratu dute. Herritar guztien laguntza eskatu dute nazio mailan 10.000 sinadura baino gehiago lortzeko (*change.org* plataforma erabiliko dute) eta Eusko Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegile bat aurkezteko, Altzolako tren geltokia mantentzearen alde. "Gogoratu jada badagoela proiektu bat, EHAAn birritan argitaratua, geltokiaren mantentze-lanak jasotzen dituenen. 2012an guztiz baliozkoa bazen, are baliozkoagoa da hamar urte geroago", zabaldu dute.

Gaur arratsaldean iritsiko dira errege magoak Elgoibarrera eta Mendarora



Gaur egingo dira errege desfileak Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarrera Santa Klara aldetik iritsiko dira 18:00etan, zaldiz. Kalegoen plazan egingo diete harrera herritarrek, eta Jesus haurtxoa gurtzera joango dira gero. Ondoren herriko kaleak zeharkatuko dituzte, eta umeen gutunak jasoko dituzte udaletxe azpian. Antolakuntzan erreleboa egon da aurten, 35 urteren ondoren, eta iragarri dute berrikuntzak izango direla, baina ez dute gehiagorik aurreratu.

Mendarora ere 18:00ak aldera iritsiko dira, Lizarpetik behera, zaldiz. Arno Guraso Elkartetik eta Udaletik Billale aurrean zain egoteko eskatu diete herritarrei. Ondoren, kalez kale ibiliko dira hiru erregeak, eta Azpilgoetako elizan amaituko dute ibilbidea. Han egingo diete ongiatorri ofiziala herriko umeek.

C.D. Elgoibarrek banatu ditu Gabonetako otarrak



C.D. Elgoibarrek egin du zozketa, eta dagoeneko azaldu dira otarren irabazleak. Lehen saria Oscar Prieto eibartarrak jaso du, eta bigarrena Jon Hernandez elgoibartarrak.

Eneko Goiburu segurarraren gazta izendatu dute Elgoibarren urteko gaztarik onena



Ikusmina sortu ohi du Gabon Zahar ferriako sari banaketak. Urteko gaztarik onena aukeratzeko lehiaketako saridunak izan ohi du oihartzun handiena beharbada, 2023an antolatutako eta Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatzailak araututako ardi-gazta lehiaketaren batean irabazi duten gaztagileek bakarrik parte har dezaketelako Kalamua elkarteak eta Udalak antolatzen duten Gabon Zahar eguneko lehiaketan. Hamar gaztagilek hartu zuten parte abenduaren 31koan eta Eneko Goiburu segurarrarena saritu zuen epaimahaiak. Ondarre izeneko baserrian egiten du gazta Goiburuk, ardi latxaren esne gordinaz. Sari gehiago ere banatu zituzten, baina. Hona, gainerako irabazleen izen-abizenak:

- **Barazki postu onenaren saria:** Gorka Irazabal (Mungiako Goreko baserrian).
- **Barazki onenak:** Alejandro Arrieta (Markiña-Xemeingo Xemein Gain baserria).
- **Fruta postu onena:** Igor Lete (Ispasterko Iparragirre baserria).
- **Saltoki onenaren saria:** Mungiako Goreko baserria.
- **Benekotasuna eta Berrikuntza Saria:** Igor Lete (Ispasterko Iparragirre baserria).
- **Mendiak ondoen zaindu dituen Elgoibarko baserritarra:** Rosa Mari Mugertza San Martin (Garate baserria).

Elgoibarko baserri auzoetako alkateak omendu ditu Udalak



Elgoibarko baserri auzoetako alkateei aitortza egin zien Udalak Gabon Zahar feria egunean, "euren denbora, ahalegina eta izerdia auzotarren alde emateagatik". Sallobente-Ermuaran, Aiastia eta Azkue auzoetan aldaketa egon da aurten. Joseba Arrizabalaga (2020an hil zen), Juan Jose Galdos eta Juan Ignacio Ansolaren lekua hartu dute Jose Manuel Almortzak (Sallobente-Ermuaran), Xabier Loiolak (Aiastia) eta Leire Egañak (Azkue).

Gainerako auzoetan alkate berberak jarraituko dute: Iñigo Alonsok (Arriaga), Iñigo Loiolak (Idotorbe) eta Miren Gotzone Aierdik (Urruzuno). Alkate guztiak oroigarri eta opari bana jaso zuten Gabon Zahar ferriako sari banaketa ekitaldia hasi aurretioxan. Joseba Arrizabalagari zegokiona haren ama Klara Mendikutek jaso zuen, eta ekitaldi bukaeran Uxue Alberdi, German Meabebasterretxea eta Millan Telleria bertsolariek bertsotan egin zuten.



■ Mendarok 40 urte bete dituela ospatu dute

✍️👤 Ainara Argoitia

40 urte bete ziren abenduaren 30ean Mendaroko Udala estreinakoz eratu zenetik, eta ospatzeko, hainbat ekintza egin zituzten joan zen urtearen hondarrean. Abenduaren 29an, esaterako, ekitaldi ofiziala antolatu zuen Udalak udalbatza aretoan, eta biharamunean, Landarbaso abesbatzaren Kontari taldeak kontzertua eman zuen San Agustinen. Lehiaketa ere antolatu zuten abenduan, herriko historia eta ondarea ezagutarazteko, eta abenduaren 30eko kontzertuaren ondoren banatu zituzten sariak. Urtarrilaren 7rako, bestalde, Ruper Ordorikaren kontzertua antolatu dute Gararock taldeak eta Udalak, lankidetzan (San Agustinen, 19:00etan). Bideoa eta argazki gehiago: barren.eus.

Mendaro herria sortzen jardun ziren batzordeko kideak, Mutriku eta Elgoibarko orduko alkateen ondorengoak eta geroztik herriko alkate eta zinegotzi izan direnak gonbidatu zituzten propio abenduaren 29ko ekitaldira.

Ekitaldi irekia izan zen, hala ere, nahi zuten herritar guztientzako, eta udalbatza aretoa txiki gelditu zen bildu zen jende guztia hartzeko. Hantxe ziren herria sortzeko batzordean parte hartu zuten Xabier Pagaldai, Silverio Txurruka, Txomin Urbietta eta Jose Mari Zelaia, bai eta batzorde hartan parte hartu zuten gainerako gehienen etxeokak ere. Ikusleen artean ziren, era berean, garai hartan Elgoibarko alkate izan zen Luis Arrietaren seme Alex eta errain Amaia Arrizabalaga, eta Mendaroko alkate izandako Txomin Zulaika, Esti Gonzalez, Irune Berasaluze, Sonia Garcia, Juanito Loiola zenaren emazte Ana Mari Mallabiabarrena eta seme-alabak, Iraide eta Xeber, eta urte guzti hauetan zinegotzi izan diren beste zenbait ere.

Enetz Ezenarro egungo alkateak egin zituen sarrerako aurkezpenak. Alkateak eskerrak eman zizkien Mendaro udalerrri egiteko lanean jardun ziren guztiei, bai eta mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi, herriko nortasuna forjatzen jardun diren guztiei ere. Izenik nabarmendu gabe, herrigintzan aritu diren guztiak izan zituen akorduan, eta barkamena eskatu zuen aurrez, gonbidatuen zerrenda osatzean norbait kanpoan laga bazuten. Era berean, eskerrak eman zizkien Udaleko langileei egindako guztiagatik eta Aintzane Urbietta eta Jaione Zabalaren izenak aipatu zituen, Mendaroko Udalaren bueltan ibili direnen zerrenda osatzen egindako lanagatik.

Ondoren, 2003. urtean Alaitz Vives kazetariak eta garai hartan Mendaro telebistako kameralari zen Leire Eizagirrek sortutako *1+1=1* dokumentala proiektatu zuten. Ordubete inguruko dokumentala da, mimo handiz egindako kazetari lana, Mendaro herria sortzeko batzordean parte hartu zutenen testigantzak biltzen dituena. Dokumentalaren emanaldiaren ondotik, Mendaroko lehenengo alkate izandako Juanito Loiolaren alaba Iraide Loiolari eman zion hitza Ezenarro alkateak. Loiolak ere esker on hitzak izan zituen prozesu hartan lanean aritu ziren guztientzat, bai eta gero Juanito aitarekin eskuz esku lanean jardun

ziren lantaldekoentzat ere. Hasierako urte haiek gogorrak izan zirela oroitu zuen Loiolak aitaren esanak gogoan hartuta; gogorrak, lehen udal korporazio hura eta udaletxeko lantaldea osatu zutenentzat, hutsetik hasi beharra izan zutelako, eta gogorrak etxeakoentzat ere, tailerreko lanak eta udaletxeko ardurak tarteko, aita falta izaten zutelako sarri etxean. Horregatik, amari zuzendu zitzaion gero, etxeko "zutabe" dutenari. Loiolaren hitzen ondotik, Izaskun Loiolak eta Aitzol Urainek agurra dantzatu zieten udalbatza aretora bildutakoei, eta mokadua izan zuten gero. Ekitaldiari Bizi Poza txarangak eman zion azkena, jai-giroan.



BANATU DITUZTE MENDAROREN 40. URTEMUGAKO LEHIAKETAKO SARIAK



Abenduan, astero, herriko ondare eta historiari buruzko lau galdera zabaldu zituzten Udaletik, eta galderak ondo erantzun zituztenen artean sei sari zozkatu zituzten abenduaren 30ean, jende aurrean: bi, ikastolan parte hartu zuten eskola-umeen artean eta beste lau, parte hartu zuten gainerako herritarren artean. Hona irabazleen izenak:

Libe Zulaika eta Jakes Lazarobaster (Ikastolan), eta Josu Bedialauneta, Ainhoa Urbietza, Carolina Sanchez eta Luken Zulaika.

Sarituak suertatu direnen artetik bakarra zegoen aretoan zozketa egin zuten unean, Libe Zulaika (argazkian) ■

EGUBERRIEN ERREPASOA

📷 Asier Orbea / Ainara Argoitia











Itsas Zaldunak taldea gailendu da Tomas Conderen oroimenezko lehen xake txapelketan



Elgoibarko Xake Irekiak izen berria estreinatu du: Tomas Conderen Omenezko Xake Txapelketa. Joan den martxoaren 4an zendu zen Tomas Conde eta txapelketari bere izena emanda urte luzez xakearen alde eginiko lanagatik aitortza egin nahi izan diote Zubi Ondoko taldekideek. Eta, nola ez, txapelketa egunean ere eduki zuten gogoan Conde. Haren alargunari eta semeei lora-sorta bat eta oroigarriak eman zizkieten xake taldeko eta udaleko arduradunek, emozioz beteriko ekitaldian. Lehiari dagokionez, hiru xakelariz osatutako 30 taldek eman dute izena aurten, eta Olaizagako kantxan aritu ziren lehian hiru bat orduz. Santurtzi Itsas

Zaldunak taldeak irabazi zuen txapelketa, jokoan zeuden 27 puntuetatik 21,5 eskuratuta. Xabier Barbazan, Asier Gonzalez eta Joseba Llanok osatu zuten talde irabazlea. Arrasateko Arlutz taldea (Andoni Miguel, Fran Miguel eta Txema Hernando) sailkatu zen bigarren postuan, 20,5 punturekin. Hirugarren postua KBI Zumaiako taldeak lortu zuen. Elgoibarko hiru talde lehiatu ziren eta Berkoa Machine Tools taldeak lortu zuen sailkapen onena, 13. postuan sailkatuz, 14,5 puntu irabazita. Createch Medical taldea 23. postuan sailkatu zen 12 punturekin eta 29. postuan sailkatu zen xakelari gaztetxoek osatu zuten Danobat Elgoibar xake taldea.

San Anton Pilota Txapelketako finalerdiak, gaur



Iaz hasitako bidetik, gizonezkoen eta emakumezkoen txapelketak izango ditu aurten ere Lagunak pilota eskolak antolatzen duen San Anton Pilota txapelketak. Gaur, hilak 5, jokatuko dituzte lehen finalerdiak, 21:30etik aurrera, Ikastolako frontoian. Pilota jaialdiari hasiera emateko, Leire Oskoz eta Goiuri Zabaleta kantxaratuko dira, emakumeen lau t'erdiko txapelketako lehen finalerdian. Promesa mailako gizonezkoen finalerdian, bi bikote arituko dira lehian: Ibarluzea eta Cansecok Etxeberrria eta Santesteban izango dituzte aurkari. Azkenik, gizonezkoen nagusien mailan, Zubizarretak eta Lizeagak Igoaren eta Apezetxearen aurka jokatuko dute. Urtarrilaren 12an izango dira bigarren finalerdiak eta 19an finala.

San Silbestre lasterketa jendetsuak egin dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Urteari antxitxika agur esateko ohitura berreskuratu dute Elgoibarren, sei urteko etenaren ostean, eta ia 200 lagunek hartu zuten parte CATT Morkaiko taldeak estreinakoz antolatu duen San Silbestre lasterketa herrikoian. Mintxeta Atletismo Taldeak zortzi alditan antolatu zuen San Silbestre lasterketa, 2007. eta 2017. urteen artean. Lasterketa honetan ohikoa den moduan, ez zen umorerik falta izan eta mozorrotuta eta jai-giroan osatu zuten bost kilometroko ibilbidea hainbat lagunek. Mikel Agirrebeña (15:33) eta Nerea Lendinez (23:48) izan ziren azkarrenak. Mendaron ere jendetsua izan zen Mendaroko Txirrindulari Elkarteak urtea korrika agurtzeko antolatzen duen San Silbestrea. Guztira 95 lagunek hartu zuten parte: 19 emakumezkoak eta 76 gizonzkoak. Izena ematearekin batera, kamiseta bana jaso zuten guztiek, duela 40 urte Mendaro herria sortu aurretxoan atera zuten kamisetaren irudi bera zuena. Herriko Enparantzan hasi zuten lasterketa, eta 5,2 kilometroko zirkuitoari bi buelta eman zizkioten, herriko hiru auzoak zeharkatuz. Bukaeran, mokadua banatu zieten guztiei frontoian. Argazki gehiago: barren.eus

👤 Ainhua Andonegi/Asier Orbea/Ainara Argoitia



80. Mugertza krosa "denboraldiko kros onena" izango dela esan dute antolatzaileek



Mugertza krosaren 80. ekitaldia izango dena aurkeztu zuten eguaztenean, eta lotu dituzten atletismoko izarrei esker, domekakoa, "zalantzarik gabe", denboraldiko krosik onena izango dela esan zuten antolatzaileek. Izan ere, beste urte batez krosen urrezko mailan egongo da Mugertza krosa, World Athletics federakuntzak kros onenei ematen dien World Cross-Country Gold kategorian, hain zuzen ere. Emakumeen lasterketako parte hartzea nabarmendu dute antolatzaileek. "Momentu honetan ez dago Beatrice Chebet (Kenya, 2000) baino atleta hoberik. *Superizar* bat da, aparta". Egungo Munduko Kros Txapelduna izateaz gainera, 5 kilometroko distantzian ere munduko txapelduna da", azaldu zuen Zigor Diezek. Palmares hori osatzeko, baina, garaipen bat falta zaiola azaldu zuen Diezek udaletxean egin zuten aurkezpen ekitaldian. "Bi aldiz izan zara txapeldunorde Elgoibarren, 2020an eta 2022an. Aurten irabaztea tokatzen zaizu, ezta?", galdetu zion, eta baiezko borobil batekin erantzun zion Chebetek. Elgoibarko krosa irabaztea zer den badakien Edina Jebitok herrikidea izango du aurkari nagusietakoa. Jebitok 2022ko Mugertza krosa irabazi zuen eta txapeldunorde izan zen 2023koan. "Sasoi betean" datorrela zehaztu zuen Diezek. Grace Loinbach Nawowuna (Kenya, 2003) da irabazteko aukerak dituen beste atletetako bat.

Laugarren egin zuen iaz jokaturako Munduko Kros Txapelketan eta 2023an egindako lasterketetan hirugarren markarik onena du 10.000 metroko proban. "Beste biak baino ezezagunagoa den arren, kontuan hartzeko ibilbidea dauka".

Gizonezkoen lasterketan, beste behin ere, txapeldun olinpiko bat arituko da antxitxika Mintxetako zirkuituan: Soufiane El Bakkali marokorak urrezko domina irabazi zuen 3.000 metro oztopoetako lasterketan, Tokioko Olinpiar Jokoetan. Horrez gainera, bi alditan izan da proba horretako munduko txapelduna, 2022an eta 2023an. "Su geldoan eta lan asko eginda" lortu duten kontratazioa izan dela argitu zuen Diezek. "Abuztutik ibili gara bere atzetik eta Marokotik zuzenean etorriko da Elgoibarrera. Atleta aparta da eta 3.000 metro oztopoetako munduko errekorra ontzeko aukerekin ikusten dut". Berihu Aregawi (Etiopia, 2001) izango du aurkari gogorrenetakoa. Etiopiarra txapeldunorde izan zen 2023ko Munduko Kros Txapelketan, eta asfaltoan, munduko errekorra du bost kilometroko distantzian. Tokioko Olinpiar Jokoetan laugarren egin zuen 10.000 metrokoan. Ishmael Kipkurui (Kenya, 2005) ere gertutik jarraitu beharko da. Munduko kros txapelduna da 20 urtez azpikoetan. Guztira 10 herrialdeetako 900 atleta arituko dira lehia hamabi lasterketatan, 09:15etik aurrera.

Paul Mekolalde, Unax Ansola eta Maddi Muñoz izan dira garaile Mendaroko ipuin lehiaketan

Urteroko ohituran euskarazko ipuin lehiaketa antolatu zuen iaz ere Mendaroko Udalak, eta abenduaren 30ean banatu zituzten sariak Enez Ezenarro alkateak eta Dorleta Lazarobaster zinegotziak, Landarbaso abesbatzaren Kontari taldeak San Agustin kulturgunean eman zuen kontzertu ondorenean. Guztira 803 lagunek parte hartu zuten lehiaketan, hiru mailatan bereiztuta.

LH1etik LH4ra artekoak sartu zituzten A taldean, eta iazko irabazlearen ipuina ilustratzea eskatu zieten. Guztira, 495 lagunek parte hartu zuten maila horretan, eta epaimahaiak Paul Mekolalde elgoibartarraren lana nabarmendu zuten. B mailan LH5etik DBH2ra artekoek parte hartu zuten; 237 lagunek guztira, eta Unax Ansola elgoibartarrak jaso zuen saria. Marrazki bat eman zieten B mailakoei antolatzaileek eta marrazki hartatik abiatuta ipuin bat osatu behar izan zuten gazteek. C maila, berriz, DBH3 eta



DBH4koek osatu zuten. Komiki bat osatu behar izan zuten haiek, eta Elgoibar Institutuko Maddi Muñozen lana saritu zuen epaimahaiak. Epaila lanetan, berriz, honakoak aritu ziren: Aitor Etxeberria, Jaime Zamakola, Ainara Argoitia, Iñaki Goitia, Olaia Revert eta Amagoia Zabala.

Kontzertu berezia emango du Udal Musika Bandak Errege Egunean

Urtarrilaren 6an, Errege Egunez, kontzertu berezia emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak Herriko Antzokian, 12:30ean. Gorka Mujikak zuzenduko du kontzertua eta aurreratu dutenez ondorengo piezak interpretatuko dituzte: Johann Straussen *The Chasse* (Polka), Giuseppe Verdiren *Aida*, E. Mokoroaren *Euskal soinua*, J.V.Egaren *Agur jaunak* (bariazioak), Johann Straussen *Kukoaren polka* eta H. Linjschooten *Rossini's birthday party*.

Gurutze Ariznabarretaren argazki bat ageri da Aldundiaren aurtengo egutegian



Gipuzkoarren kirolzaletasuna eta balioak erakustea jarri zuen gaitzat Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024ko egutegia osatzeko lehiaketarako eta 479 argazki aurkeztu zituzten herritarrek lehiaketara. Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak hamahiru hautatu zituen horietatik: bat, azalean jartzeko, eta hilabete bakoitzerako beste bana. Pablo Perez urretxuarraren argazkia aukeratu zuten azalerako, eta abendurako, Gurutze Ariznabarreta elgoibartarraren bat, Ondarbeltzen arrantzan ari zen arrantzale bati egindakoa.

Agortu dira Ruper Ordorikak Mendaron emango duen kontzerturako sarrerak

Ruper Ordorikak kontzertua emango du domekan San Agustin kulturgunean, Mugalariak taldearekin (19:00). Gararock taldeak antolatu du kontzertua, Udalaren laguntzarekin, eta Mendaroren 40. urtemuga ospatzeko ekintzen barruan sartu dute. Bukatu dira sarrerak.

Euskaraz egiteari lotutako deserosotasunak gutxitzeko tailerra antolatu dute Elgoibarren

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak antolatu dute tailerra, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta EMUN kooperatibak, gai sozialak kudeatzeko aholkularitza eskaintzen duen enpresak, emango du. 10 orduko tailerra izango da (bost orduko bi saio izango dira) eta urtarrilaren 8tik 18ra eman ahal izango da izena, doan, Elgoibarko Izarraren bulegoan edota hara deituta (943 741 626). Urtarrilaren 20an eta 27an izango dira bi saioak, Aita

Agirre kulturgunean, 09:00etatik 14:00etara bitartean, eta gehienez 25 lagunentzako lekua izango da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, euskaraz bizi nahi duten hiztunentzat eta hizkuntza kontzientzia duten hiztunentzat antolatu dute tailerra, bereziki bost helburu hauekin: euskaldunok geure buruak babesteko, modu egokian erantzuteko, egin nahi duguna egiteko, konfiantza sentitzeko geure buruengan eta euskaldun moduan indartzeko.

Urtarrilaren 13an zabalduko dute Elgoibarren seilu erakusketa



Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkarteak urtarrilaren 13an zabalduko du urteroko seilu erakusketa, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dute erakusketa eta urtarrilaren 20ra arte egongo da ikusgai, ondorengo orduetara: lanegunetan, arratsaldean, 18:30etik 20:30era, eta jaiegunetan, goizez, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 18:30etik 20:30era.

Urtarrilaren 20an, berriz, ekitaldi berezia egingo dute kultur etxeko sotoan, erakusketa parte hartuko dutenak eta aurtengo omenduak saritzeko. Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125 urteko historiari eskaini diote aurtengo erakusketa eta seilu berezi bat aterako dute motibo horrekin. Posta-bulegoa hilaren 13an zabalduko dute Kultur Etxeko erakusketa gelan bertan, 11:00etatik 14:00etara.

0-3 urte bitarteko haurrentzako irakurketa kluba antolatu dute Elgoibarren

Irakurketa sustatzeko kanpainaren barruan *Azalerako Ipuinak Irakurketa kluba familiar* antolatu du Gotzon Garate Udal Liburutegiak 0-3 urteko haurrentzat, guraso edo zaintzaile batek lagunduta. Saioa Bikandik dinamizatuko ditu saioak eta 40 minutuko iraupena izango dute. Lehenengo saioa 0-1 urte bitartekoentzat izango da, urtarrilaren 24an, 17:00etan. 1-3 urtekoentzako saioa, berriz, otsailaren 21ean egingo dute, 17:00etan. Plazak mugatuak dira eta izena eman behar da: 943 743 525 / 688 710 138 edo liburutegia@elgoibar.eus.

Minutu bateko film laburrak sortzeko lehiaketa antolatu dute Mendaron

Lumiere Minutua lehiaketa antolatu du Limbus Filmakeko zuzendari eta ekoizle Iban Del Campok Mendaron, Uztargi tabernaren eta Galle-tiak gozotegiaren babesarekin. Toma bakar batean, gehienez minutu bateko filmak grabatzean datza lehiaketa, zinemaren aitzindari izan ziren Lumiere anaiek egiten zuten antzera. Urtarrilaren 18ra arteko epea dago izena emateko eta gaia librea izango da. Uztargi tabernan eman behar da izena, debalde, eta epaimahai batek eta publikoak aukeratuko dute irabazlea. Ondoren, mokadua eskainiko dute Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, gauzez edo etxeko langile moduan.

605 402 030

Adinekoak zainduko nituzke. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia handia ditut. Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago. **614 114 360**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat, eta erreferentzia onak. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prestutasuna. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. **643 505 827**

Eskaintza

Batxilergoko matematika eta fisika eskola partikularrak ematen dituen norbaiten bila nabil. **688 636 212**

ETXEBIZITZAK

Etxea alokairuan, Sigman. Bi logela, egongela eta sukaldea. Jantzita dago, eta dena kanpoaldera ematen du. Gas berogailua dauka. Lehenengo solairua.

686 246 662 / 630 671 584


Duela egun batzuk bilera bat egin genuen, eta eskari-galderen atalean jabe batek eskailera margotzeko eskatu zuen, egoera tamalgarrian zegoela nabarmenduz. Askok baietza erantzun zioten eta eskailera egokitzeko eta margotzeko erabakia hartu zuten. Erabaki hori baliozkoa den jakin nahi nuke.

Higiezina eta haren zerbitzuak behar bezala mantentzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren obrak eta apaindura-baldintzak betetzeko beharrezkoak direnak nahitaezkoak dira, eta ez dute jabeen batzarraren alde aurreko akordiorik behar. Obra horiek ez dute Administrazioak ezarritakoak izan behar; jabeek eska ditzakete. Eskaera hori batzarrean edo batzarretik kanpo egin daiteke, lehendakariari zuzendutako idazkiaren bidez. Jabe batek, beharrezkoa ikusten duelako, jabeen batzar baten barruan eta galde eskaeren txandan eskatzen badu ataria margotzeko, kontua ez da batzarrak beharrezkoa ez den obra bat egitea adosten duen ala ez, baizik eta beharrezkotzat jotzen duen obra egiteko eskaera aintzakotzat hartzen duen ala ez. Jabeen batzarrak ezin du une horretan erabaki eskaera bidezkoa den ala ez, eta nahitaez erantzun behar du.

Gomendioa. Horrelako egoeretan eskaera aintzat hartu behar da, eta jarduketa horiek ordaintzeko modua Jabeen Batzarrak adostu behar du, alde aurreko deialdi baten bidez. Deialdi horretan, alderdi hori gai zerrendako puntu batean sartu behar da.

ASESORIA GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Jakes**, abenduaren 27an zure lehenengo urtetxoa bete zenuelako. Muxu handi pila bat. Maite zaitugu!



Zorionak, **Lea**, abenduaren 30ean 5 urte bete zenituelako. Besarkada handi bat etxekoen, eta bereziki, Gilenen partez.



Zorionak, **Lucia!** Igandean 9 urte beteko dituzu eta merezitako ospakizuna prestatuko dizugu. Ondo pasa, eta jarraitu gure bizitzak alaitzen. Muxu handi bat!



Zorionak, **Ander**, txapeldun! Familiakoen partez.

EXPRESS ESKAINTZAK!

LG F4DR6009A1W
ARROPA GARBIGAILUA ETA SEKAGAILUA

A
T
G

639 €



- 9kg-ko karga arropa garbigailurako
- 6kg -ko karga arropa sekagailurako
- Progamaketa bereziak: Antialergikoa, Ai Wash, Eco programa...
- 1400 bira/min.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



*Errege gau zoragarria
eta 2024 urte oparosa
elgoibartar guztientzat!*

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES  

5 BARIKUA

18:00 Errege magoen desfilea Elgoibarren. Kalegoen plazan hasita.

18:00 Errege magoen desfilea Mendaron. Lizarpetik behera. Bukaera, Azpilgoetako elizan.

21:30 San Anton pilota txapelketako partidak. Ikastolako frontoian.

6 ZAPATUA

10:00 Dultzaineroen diana. Kalegoen plazan hasita.

11:00 Kristau ikasbidekoen meza. San Bartolome parrokian.

12:30 Udal Musika Bandaren Errege Eguneko kontzertua. Herriko Antzokian.

1. *The Chasse*. J. Strauss. (Polka)

2. *Aida*. G. Verdi.

3. *Euskal soinua*. E. Mokoroa.

4. *Agur Jaunak*. J. V. Egea. (Bariazioak).

5. *Kukoaren polka*. J. Strauss.

6. *Rossini's birthday party*. H. Linjschooten.

19:00 Mugertza Krosean parte hartuko dutenei harrera. Udaletxean.

7 DOMEKA

10:00 Juan Mugertza nazioarteko krosa. Mintxetan.

19:00 Kontzertua: Ruper Ordorika. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

Zinea



Zinea

Herriko Antzokian

'Ocho apellidos marroquíes'

5, barikua: 19:00

6, zapatua: 19:00 / 22:15

7, domeka: 19:00

8, astelehena: 21:00

'Queso de cabra y te con sal' (Ongarri eta Mendiak Bizirik)

10, eguaztena: 21:00

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

URTARRILA

5 BARIKUA

Arriola

6 ZAPATUA

Garitaonandia

7 DOMEKA

■ Fernandez

8 ASTELEHENA

Yudego

9 MARTITZENA

■ Oruesagasti

10 EGUAZTENA

Barrenetxea

11 EGUENA

■ Ibañez

12 BARIKUA

Garitaonandia

2024 urte guztian, gaeuz:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza, 4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384



I. URTEURRENA

Javier Urbieta Uranga

2023ko urtarrilaren 3an hil zen, 81 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
urtarrilaren 7an, 12:30ean, Mendaroko Garagartzako elizan.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Zure bizitza eman zenuen
etengabeko lanean,
bizipen guztien ondoren zaude
betiko atsedenean.
Guk ere deia izango dugu
uste gutxien denean,
orduak ere hortxe izango
gaituzu aldamenean.***

Etxekoak



IV. URTEURRENA

Ramon Aramburu Igarzabal

2020ko urtarrilaren 3an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez
IV. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 7an,
11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Gizon umila, gizon alaia,
argi ta eskuzabala;
aita, senar ta lagun artean
izan zara espeziala.
Urteak gogor ta hotz jo gaitu
hasi eta berehala...
Jakin gure bihotzetan beti
bizi izango zarela.***

Etxekoak



III. URTEURRENA

Sabin Osoro Unzueta

2021eko urtarrilaren 8an hil zen, 98 urte zituela.

***Egunak joan dira
eta badoaz,
baina zu ez zara gugandik askorik aldendu.
Gure gogoan zara, Sabin***

Etxekoak



Maisulana

Anjel Ugarteburu



Parla, parla! Egizu berba, egizu berba! Esan ei zion Michelangelok zizelkatzen ziharduen Moises-en marmolezko irudiari, hain gogotsu eta artetsu ari baitzen bere lanean. Buru-bihotz, kolpe eraginkor bezain amultsuz burutzen ari zen irudiak bizi-bizia zirudien. Solaskide izatea, besterik ez zuen falta.

Geppetto agure zaharrak ere antzera, geroago, 1882an, Carlo Collodik idatzitako Pinochioren abenturetan. Seme-alabarik ez zuen agureak egurrezko semea sortu zuen bere aroztegian. Hain ondo, ze irudiari bizia ere eman zion benetako mutiko bihurtuz. Maisu-lanen emaitzak, bata zein bestea.

Lurrak, fruiturik ematekotan, eguzkia eta lurra, biak, ditu beharrezko. Lur hori landua bada eta eguzkia neurri egokian datorrena, han izango dira fruituak ere, ezbairik gabe. Marmol edo haitzurdin ona izan zuen lehengai Michelangelok eta egur egokia Geppettok. Zizel-kolpe edo fereka bakoitzari batak zein besteak emandako arretazko indar neurtuak egin zuen eguzkiarena.

Artista horiek baino lehenagokoa dugu Ovidiok, erromatar olerkari ospetsuak, bere *Metamorfosis* liburuan aipatzen duen **Pigmalion**, Txipreko erregea bera. Eskultorea ere bazen eta bere gustuko emakume bat, Galatea, irudikatu zuen marfilez. Hain ederra, ze hartaz zeharo maitemindu zen. Musu ere ematen zion baina marmol hotzaren sentsazioak ez zuen asebetetzen. Hala, Afrodita jainkosari egin zion erregu, irudi hotzari haragizkoaren epeltasun goxoa ezar ziezaion. Afroditak haren eskaria haintzat hartu eta goiz batean, egunero lez, musu eman zionean, leun, goxo eta epel somatu

zuten bere ezpaineak Galatearen larruazala. Bai erantzuna jaso ere! Haren poza! Bizirik zegoen berak hainbesteko maitasunez sortutako Galatea.

Horri deitu izan diote psikologo eta hezitzaileek "Pigmalion eragina". Maitasunezko erabakiz burutzen den lanak desio eta espero ditugun emaitzak izan ohi ditu ondorio. Berdin izan liteke "Galatea eragina", Pigmalion maitagarri bat zizelkatzen duena Galatea balitz ere.

Jaitsi nadin esperientziak erakusten dituen adibideetara. Suertatu izan zait ikasketan gaizki dabilen bati nahiko ondo egindako lana balioztatu eta gero hark bere errendimendua hobetzea. Azterketa batean, akatsak akats, zerbait ondo balego, hori balioztatzea, bai, zenbaki edo monosilabo eskas baten orde, ondo erantzun duena balioztatuz edo baita, aukera izanez gero, gelakideen aurrean gorai patuz ere. Ez badirudi ere, oso eraginkorra da.

Bihotzetik, emozionalki, irabazten dira ikasleak eta haien errendimendua. Horixe izan zen Michelangelo, Geppetto edo Pigmalionen arrakastaren funtsa. Inteligentzia emozionala deitzen zaio. Norbaitengandik espero duzuna lortzeko bidea harenganako hurbiltasuna, ezagutza eta lan pertsonala dira. Horrela lortzen dira maisulanak.

Irudimena dantzan jarrita sortu diren mito zein parablek gure giza izakeran dute oinarria. Asmaketa badira ere, benetako arazo eta asmoen islada baino ez dira; gizakiok berezko ditugun kezka eta itxaropenen oihartzun: Pigmalion, Galatea, Michelangelo, Geppetto... Grezia klasikoan, Errenazimenduan, Erromantizismo garaian... Gaur egun ere baliagarri eta egia direnak. Egin aproba.





MERKEALDIA
%35eko deskontua
etxerako neguko ehungintzan!

Etorri, bisita gaitzazu!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Denok uste dugu
ondo ikusten dugula...



hobeto ikusten dugun arte.

Uzuri  optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359
www.uzurioptika.com

Uzuri Optikan 2024an
gauzak argi ikusten
lagunduko dizugu!

Etorkizuna eraikitzen
jarraitu dezagun elkarrekin



Zorionak eta
Urte Berri On!

 **Meka**
Lanbide Eskola

EUSKARAZ EROSO NOIZNAHI ETA NONAHI

Euskaraz egin nahi eta ezin?

TELP TAILERRA

TELP-AK LAGUNDUKO DIZU:

Zeure burua babesten
Modu egokian erantzuten
Egin nahi duzun hori egiten
Eroso sentitzen
Indartzen



10 ordukoa (bost orduko bi saio)

Urtarrilak 20 eta 27 (larunbatak)

Ordutegia: 09:00 - 14:00

Aita Agirre Kulturgunean

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala

Izena emateko: urtarrilaren 8tik 18ra
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
943 741 626 (25 lagunentzako, doan)



Gipuzkoako Foru Aldundia